

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Irabazteko xederik gabeko kirol elkarteentzako 2024rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriak

Udalbatzak, 2024ko maiatzaren 15ean egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen onespena ematea irabazteko xederik gabeko kirol elkarteentzako 2024rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriari, zeinen testu osoa argitaratzen baita, denek jakin dezaten.

Erabaki hori behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

ERREKURTSOAK

Interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote alkate honi, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aurrekoek gain, egoki irizitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango dute.

Oinarrien testu osoa eranstean da argitaratzeko, eta 30 egun naturaleko epea ematen da, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, interesa dutenek laguntza ekonomikoak lortzeko eskaerak aurkeztu ditzaten, beharrezko dokumentazio guztiarekin batera.

Legutio, 2024ko uztailaren 3a

Alkatea

NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTAZAR

Irabazteko xederik gabeko kirol elkarteentzako 2024rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Behar den bezala legeztaturik dauden elkarte eta klubek udalerrriaren esparruan sustatutako edo udalerrirako interesgarriak izan daitezkeen 2024rako kirol jarduerak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontuaren mugen barruan.

Diruz lagunduko ez direnak.

Ehiza eta zikloturismoa dirulaguntza lerro honetatik kanpo geratzen dira, kontuan hartuta kirol mota horien egitura eta berekin dakarten jardunaren ezaugarriak.

2. Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta klubak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira. 2024rako udal honen dirulaguntza izenduna jaso duten elkarte eta klubek 2024ko uztailetik abendura bitartean (biak barne) soilik justifikatu ahal izango dituzte dirulaguntza horren gastuak.

Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean dauden eskatzaileak.

Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan 2024rako erantzukizun zibileko aseguruak kontratatuta ez duten eskatzaileak.

3. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

Kirol klub edo elkarteek egoitza duten herri edo udalerriko bizilagunentzat 2024an egiteko egutegi espezifiko batekin proposatutako kirol programetako jarduerak antolatzeak dakartzan gastuak; hor sartzen dira federazioen fitxak, arbitrajeak, berariazko materiala (baloiak, pilotak, ekipamendua, aholkularitza, etab.) eta kirol monitorearen gastua.

Ez dira diruz lagunduko (hots, diruz lagundutako gastuen kalkulutik aparte egongo dira) jatekoarekin, edatekoarekin (bai kirolarientzako anoa) eta garraioarekin (entrenamenduetara edo kirol probetara joateko garraioa) loturiko gastuak. Horrez gain, ez dira diruz lagunduko Legutioko Udaleko Kultura eta Kirol Batzordeak diruz ez laguntzea erabakitzen duen gastu guztiak.

4. Aurrekontu kreditua

Irabazteko xederik gabeko kirol klub eta elkarteentzako dirulaguntzetarako 341.481.010 aurrekontu aplikazioa jasotzen du Legutioko Udalaren aurrekontuak.

Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa, 2024ko ekitaldirako, 36.000,00 euro da.

5. Dirulaguntzen izaera

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk izango deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko.

6. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka prozedura izango da, eta, horretarako, eskaerak alderatu egingo dira, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako printzipio hauek bermatuta: publizitatea, lehia, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta efizientzia.

7. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Hauek izango dira dirulaguntzak emateko balioespen irizpideak:

a) Zer interes publiko edo sozial duen jarduera proiektuak edo programak, baita zer interes duten ezarritako helburuek ere.

b) Udalerriko herrietan eragina duten eta bertako kultura eta kirol jarduerak sustatzen dituzten proiektu edo jarduerak izatea.

c) Entitate eskatzailearen egonkortasuna eta kaudimena, eta aurkeztutako programaren jarraitutasuna.

d) Erakunde sustatzailekoak ez diren pertsonen kideek parte hartzen duten baldintza beretan parte hartu ahal izatea proiektuaren edo programaren xede diren jardueretan.

e) Programa dirulaguntzaren bitartez gauzatzen dela bermatzeko aurkeztu diren baliabideak (azpiegitura, materialak eta baliabide pertsonalak).

f) Programa edo jarduerak euskararen zabalkundearen laguntzea.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa

Programaren kostuaren eta haren zati bat finantzatzeko dauden baliabideen arabera izango dira dirulaguntzak. Garrantzitsua da eta kontuan hartuko da sustatzaileak baliabide propioak sortu ahal izatea edo baliabideak beste administrazio publiko batzuen bitartez lortu ahal izatea.

Dirulaguntzen zenbateko osoa 2024rako esleitutako aurrekontu mugen arabera izango da.

Gehienez ere, sortutako gastuaren ehuneko 75 lagunduko da diruz. Zenbateko hori diruz lagun daitezkeen gastuen arabera kalkulatu da, bat etorri oinarri hauen hirugarren atalean xedatutakoarekin.

Kirol elkarte edo klub bakoitzari gehienez ere 9.000,00 euroko dirulaguntza emango zaio.

9. Eskaerak aurkezteko modua, epea eta tokia

Dirulaguntzen eskaerak eredu ofizialaren arabera egingo dira (I. eranskina, www.legutio.eus web orrian eskuragarri), eta Legutioko Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztu beharko dira (www.legutio.eus web orrian).

Eskaerak eta dokumentu osagarriak aurkezteko, 30 egun naturaleko epea izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo agiri horiek osatu gabe badaude, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak zuzentzeko, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horren ondoren akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

Elkarte bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du.

10. Eskaera osatzeko dokumentazioa

Eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Erakundearen estatutuen fotokopia eta legea betez eratuta egotearen eta Eusko Jaur-laritzako Elkarte eta Erakundearen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria (baldin eta ez bada aurkeztu beste deialdi batzuetan).

b) Jardueraren proiektua edo jardueren urteko programa; honako hauek adierazi behar dira bereizita:

I. Lortu nahi diren helburuak.

II. Gauzatze egutegia.

III. Programaren edo jardueraren kostua.

IV. Deialdi honetatik kanpo kudeatuko diren baliabideak.

V. Jarduera bakoitzeko diru sarrerak.

VI. Bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota.

VII. Taldekideen zerrenda, sexuka banatuta.

c) Legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, elkarte dirulaguntzak jasotzeko gaitasungabetua ez dagoela adierazten duena (II. eranskina, www.legutio.eus web orrian eskuragarri).

d) Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntza eskaeraren xede den proiekturako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako edo erakunde horiei eskatutako dirulaguntza edo laguntzena (III. eranskina, www.legutio.eus web orrian eskuragarri).

e) Diru sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua, 2024. urtean egingo den urteko programa edo kirol jarduerena (IV. eranskina, www.legutio.eus web orrian eskuragarri).

f) Elkartearen titulartasuneko kontua, banku erakundeak behar bezala egiaztatua (V. eranskina, www.legutio.eus web orrian eskuragarri).

g) Zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzako betebeharren ordainketa egunean edukitzearen ziurtagiria (VI. eranskina, www.legutio.eus web orrian eskuragarri).

Erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute gauzatzen dituzten jarduerekin lotuta Legutioko Udalak eskatzen dizkien datuak eta dokumentazioa emateko.

11. Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzeko, proposamena egiteko eta ebazpena emateko eskumena daukaten organoak

Dirulaguntzak alkateak emango ditu, norgehiagoka bidez, kiroleko informazio batzordeak proposatuta, eta udalbatzak dagozkion oinarriak onetsi ondoren. Proposamen hori egiteko, batzordeak egokituz jotzen duen aholkularitza tekniko eskatu ahal izango du.

Informazio batzordeak ezin izango du inola ere proposatu oinarri arautzaileetan ezarritakoa betetzen ez duten dirulaguntzak ematea.

Zalantzarik izanez gero oinarri hauek interpretatzean, Legutioko Udaleko Kirol Batzordeak argituko ditu.

12. Ebazteko epea

Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gehieneko epea igaro bada eta interesdunei bidezko ebazpenaren berri eman ez bazaie, eskaera administrazio isiltasunez ezetsitatzat joko da.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Legutioko udalbatzari hilabeteko epean, ebazpen hori ematen denetik aurrera; bestela, zuzenean aurkeztu ahal izango dute administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtso ere aurkeztea.

13. Dirulaguntzak ordaintzea

Elkarte edo klub bakoitzari dagozkion dirulaguntzak zehaztu eta gero, honako banaketa honen arabera ordainduko dira:

Aldez aurretik ordainduko da dirulaguntza, hau da, justifikazioa egin baino lehen. Diruz lagundutako kopuru osoaren ehuneko 75 programaren hasieran emango da, eta ez da zertan bermerik eman, jarduerak gizarte interesa baitaukatete, baina, hala badagokio, ez betetzeagatiko erantzukizuna eta dirua itzultzea eskatuko da.

Gainerako ehuneko 25a ordainduko da 2024ko ekitaldian egindako jardueren memoria eta ordainketa ziurtagiriak aurkeztu ondoren.

14. Dirulaguntza justifikatzeko epea eta era

2025eko urtarrilaren 31n bukatuko den epean, dirulaguntzen kirol elkarte eta klub onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1- Diruz lagundutako gastuen justifikazio memoria, entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.

2- Fakturak, jatorrizkoak edo kopia konpultsatua; datu hauekin argi identifikatuta egon beharko dira:

Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ (ahal dela, elkartearen edo klubaren izenean).

Gastuaren xedea.

Data.

Faktura zenbakia.

3- Elkarteak edo klubak izan dituen gastu eta sarrera guztien zerrenda (gastuen eta diru sarreraren balantzea).

4- Zinpeko adierazpena, entitate onuradunaren ordezkariak sinatua, gastua finantzatu duten dirulaguntza edo diru sarrerei buruzkoa; horien zenbatekoa eta jatorria adierazi behar da.

5- Egindako publizitate materialaren ale bat (kartelak, kamisetak, eskuko programak, etab.); material horrek Legutioko Udalaren zigilu inprimatua izan behar du.

6- Fakturak ordaindu izana egiaztatzeko dokumentazioa. Honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

Enpresa jaulkitzailearen zigilua duten jatorrizko fakturak, faktura ordaindu dela zehazten dutenak.

Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertu behar dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.

Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako edota zigilatutako ziurtagiria; bertan agertu behar dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

Emailaz jasotako banku laburpen elektronikoak edo transferentzia agindu telematikoak.

Jatorrizko erosketa agiriak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak.

Ez dira onartuko gastuen justifikazio gisa:

Honako hauek argi identifikatuta ez dituzten fakturak edo agiriak:

Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ (ahal dela, elkartearen edo klubaren izenean).

Gastuaren xedea.

Data.

Faktura zenbakia.

Zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako konturako atxikipenei dagokienez.

15. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira honako hauetakoren bat gertatuz gero:

Aurkeztutako eskaerak edo agiriei gezurrezko datuak badituzte.

Emandako dirulaguntza ez bada erabili aurkeztutako eta onartutako programan jasotzen diren jardueretarako.

Hasierako aurrekontuan jasotako gastuak (zegokien ehuneko ekonomikoa aztertze erabilakoak) ez badira modu egokian, 14. oinarriak ezarritako betekizunekin bat etorri, justifikatu faktura eta ordainagiriekin. Gastuen zati bat bakarrik justifikatzen bada, justifikatu gabe geratu den zatiari dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Jardueraren benetako kostua kontuan hartuta gehiegizko finantzaketa lortu bada; halakoetan sobera dagoen diru kopurua itzuli beharko da.

Gainfinantzaketarik badago, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek dirulaguntzak edo laguntzak eman dituztelako. Halakoetan, onuradunak Legutioko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, proiektuaren edo jardueraren kostuaren ehuneko 100 gainditu ez dadin; adibidez, oinarri hauetako 15. eta 16. puntuetan jasotakoa.

Oro har, oinarri hauetan, aplikatu beharreko araudian edo dirulaguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrak edozein bete ez bada.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua jasotzen dituen gainerako itzultze arrazoietatik edozein gertatuz gero.

Dirua itzultzeko prozedura Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera izapidetuko da, eta udalbatzaren, dirulaguntzak ematen dituen organoaren edo hark eskuordetzen duen organoaren erabakiaren bidez ebatziko da, eta entzunaldi izapidea egin beharko da beti.

Itzulketa horretarako ezarritako epean egiten ez bada, dagozkion berandutze interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabaki arteko interesak, alegia.

Itzuli beharreko kopuruak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20 gainditzen badu, 2025eko ekitaldian emango diren dirulaguntzetan egokituko litzaiokeen dirulaguntza osoaren ehuneko 20ko zigorra aplikatuko da.

16. Lankidetzak

Legutioko Udalak, kirol hedapenerako antolatutako kanpainak gauzatzeko egoki irizten dion kasuetan, elkarte edo klub onuradunek zer laguntza eman behar duten erabakiko du, urtean zehar eta dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera.

Erakunde onuradunak berak udalerrian egiten den kirol eta kultura jarduera bat gutxienez antolatzeko edo hartan lankidetzan aritzeko baldintzaren pean emango da dirulaguntza.

17. Betebeharrak

Udalaren oniritzia jaso aurretik, udalaren armarria jarri beharko da elkarte edo klubek egindako material guztietan (kartelak, kamisetak, etab.), gastu modura sartuta badaude dirulaguntza eskatzean aurkeztutako aurrekontuan edo osorik udalak finantzatuak badira.

18. Dirulaguntzak emateko arrazoiak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako arrazoietan egindako funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea ekar dezake.

19. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei dagokienez, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan jasoriko arauak eta lege horren araudia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. titulua.

20. Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan jasota ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Legutioko Udalaren Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.

21. Berdintasuna

Elkartek berak edo haren izenean hirugarrenek sortutako behin betiko edozein dokumentu idatzi edo digitaletan hizkera ez-sexista erabili beharko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua betetzearren. Era berean, emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaindu beharko du erakundeak, bai eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, askotarikotasunaren, erantzukidetasunaren eta rol nahiz genero identitateen pluraltasunaren irudia sustatu ere, informazio idatzian, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate ekintzetan, barneko eta kanpoko komunikazioan, komunikazio formalean eta informalean, eta proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.

22. Euskara

Ahal den guztietan, inprimakiak, kartelak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz baino ez dira egingo. Bi hizkuntzetan eginez gero, euskarazko testua lehenetsiko da, Legutioko EBNren 2.3 puntuan (hizkuntzak erabiltzeko irizpideak) adierazitakoaren arabera.

Eskola kiroleko adinean dauden haurrentzako jardueretan euskararen erabilera lehenetsiko da, baldin eta begiraleak gaituta badaude; bestela, jardueretan euskararen erabilera bermatzeko neurriak hartu beharko ditu elkarrekin.

Legutio, 2024ko uztailaren 3a

Alkatea

NEREA BENGEOA GARCÍA DE CORTAZAR